

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

Albisteak

Zabalik dago matrikula-aldia Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren 5. edizioan

2014/07/10

Berrikuntzak dakartza 2014ko urrian hasiko den Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu tituluaren 5. edizioak. Batetik, saio presentzialak hilean behin emango dira, modu trinkoan, asteburuetan. Bestetik, hizlariekin hartu-eman sakonagoa izateko aukera egongo da. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere, euskal kulturaren ordezkari ezagunek hartuko du parte Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako campusean egingo diren saioetan.

Formatuan aldaketa

Aste barruko saio presentzialetik, asteburuko saio trinkoetara egin du jauzi Euskal Kulturgintza Transmisioa aditu tituluaren (EKT) bosgarren edizioak. Hala, aurreko edizioetan ez bezala, oraingo honetan, ikasle eta hizlariak hilean behin elkartuko dira, hileko asteburu batean. Saioak hasiko dira larunbatean 09:00an eta bukatuko dira igandean, 17:00an. Ikastaroaren egutegiari dagokionez, eskolak hasiko dira 2014ko urrian 18an eta amaituko dira 2015eko ekainaren 14an.

Saioak egingo dira, Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Otorduak ere bertan izango dira, eta, hala behar duenarentzat, lo egiteko lekua ere egongo da. Aldaketa horrekin matrikulatzeko bidea ireki nahi izan zaie, orain artean, astean zehar saioetara etorri ahal izan ez direnei. Gainera, asteburuetako saio trinko horiek ahal bideratuko dute hizlari eta ikaskideen arteko hartu-emanen sakontzea.

Saio presentzialak izango dira hurrengo egunetan:

2014an

- Urria: 18-19
- Azaroa: 15-16
- Abendua: 13-14

2015ean

- Urtarrila: 17-18
- Otsaila: 14-15
- Martxoa: 14-15
- Apirila: 18-19
- Maiatza: 16-17



Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

aditu titulu (5. edizioa)

2014-2015 ikasturtea

- Ekaina: 13-14

50 pertsonaia ezagun inguru

Aurreko edizioetan bezala, euskal kulturaren izen ospetsu askok hartuko du parte 5. edizioan. Besteak beste, hitzaldiak eskainiko dute Irati Jimenezek, Mari Luz Estebanek, Juan Jose Ibarretzek, Jesus Egigurenek, Eider Rodriguezek, Ander Lipusek eta Joseba Sarrionandiak.

Edizio honetan zenbat hizlarik gogoeta berezia egingo dute **euskaldunon nazio kulturalaren aurrerabideaz**. Horretarako hainbat saio harilkatuko dira ikasturtean zehar:

- Ikuspegi diakronikoa (Paulo Iztueta).
- Kanpoko eta barruko begiradak (Joseba Sarrionandia eta Kike Amonarriz).
- Pentsalarien eta politikarien gogoetak (Juan Jose Ibarretxe, Xabier Zubizarreta eta Jesus Egiguren).
- Herri-psikologia osasuntsu baterantz joateko irakaspenak (Mari Luz Esteban, Jose Angel Irigarai eta Joseba Zulaika).

Esaterako, **Joseba Sarrionandia** idazlea eta pentsalariak bi saiotan hartuko du parte. Lehenean jardungo da nazio kulturalaren egoera eta aurrerabideez, bigarrenean, aldiz, begiratua egingo die euskal literaturaren azken 50 urteei eta aurrera begirako erronkei.

Era berean, fokua era jarriko da **familiaren baitan bertan bideratzen den transmisioari**. Zein nolako sinergiak sortzen dira familian bertan euskal kulturgintzaren aurrerabidean? Horretaz arituko dira, bestak beste, Jose Mari Sors eta Gexan Sors (kulturaren industria), Martin Ibarbia eta Unai Ibarbia (ikus-entzunezkoak), Edorta Jimenez eta Irati Jimenez (literatura).

Gainera, EKTn ikasle izandakoak **bertso-kronikagile** arituko dira 5. edizio honetan. Bertsolari bakoitzak asteburu baten kronika osatuko du. Lan horretan arituko dira: Miren Amuriza, Igor Elortza, Fred eta Xabi Paya, Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita, Erika Lagoma eta Beñat Gaztelumendi.

Eta EKTren edizio guztietan **ohikoak diren bestelako saioak ere izango dira**: euskal kulturgintzaren ikuspegi diakronikoa lehen pertsonan kontatuta; euskal sortzaileen mamia eta atsegina bertatik bertara dastatzeko aukera, taldeatasunean antzeko jomugak dauzkaten pertsonak ezagutzeko bidea...

Atalez atal, hautxek dira bosgarren edizio honetako partaideak:

Egungo euskal kulturgintzaren aitzindariak:

- Patxi Uribarren, Pilare Baraiazarra eta Mixel Etxekopar.

Transmisioa belaunalditik belaunaldira:

- Jose Mari Sors eta Gexan Sors (kulturaren industria), Martin Ibarbia eta Unai Ibarbia (ikus-entzunezkoak), Edorta Jimenez eta Irati Jimenez (literatura).

Nazio kultural euskaldunaren aurrerabideaz:

- Ikuspegi historikoa: Paulo Iztueta.
- Kanpotik barrura eta barrutik kanpora begira: Joseba Sarrionandia eta Kike Amonarriz.
- Bizikidetasunaren erronka emozionalak: Mari Luz Esteban, Jose Angel Irigarai eta Joseba Zulaika.
- Eta datozen 30 urteetan zer?: Juan Jose Ibarretxe, Xabier Zubizarreta eta Jesus Egiguren.

Sortzaileak: mamia eta atsegina:

- Literatura: *Harri eta Herri-k* (Gabriel Aresti) 50 urte: Iratxe Retolaza, Ibon Aranberri. Azken 50 urteez gogoetaldia gaur: Joseba Sarrionandia eta Joseba Gabilondo. Belaunaldi gazteak: Eider Rodriguez eta Ixiar Rozas.
- Antzerkia: Lipus.
- Dantza: Eneko Balerdi.
- Musika: Kalakan, Aire ahizpak, Josu Zabala eta Josu Larrinaga.
- Hitzak eta irudiak: Miriam Luki eta Concetta Probanza.
- Denetarik Lasarte-Orian: Kukuka (Maidor Oiartzabal, Dabid Egizabal, Donets Iradi eta Jose Mari Agirretxe "Porrotx").
- EKTn ikasle izandakoak bertso-kronikagile orain: Miren Amuriza, Igor Elortza, Fredy eta Xabi Paya, Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita, Erika Lagoma eta Beñat Gaztelumendi.

SORguneak ikertegia: formazio teorikoa eta aurreko edizioetako sozializazioa:

- Nekane Goikoetxea, Lorea Agirre, Julen Arexolaleiba, Iñaki Urruzola, Larraitx Ariznabarreta, Jon Sarasua eta Andoni Eizagirre.

Matrikulazioa: epea eta prozedura

Adituan izena emateko zabalik egongo da matrikula epea 2014ko uztailearen 7tik urriaren 10era.

Bi modu daude matrikula egiteko:

1. Eskoriatzara etorri, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera. Goizez, 08:30-12:00; arratsaldean, 14:30-17:30

2. Bidalita izen-emate orria posta arruntetik, gutun zertifikatuan, hurrengo helbidera: Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Dorleta auzoa z/g. Eskoriatza 20540 (Gipuzkoa).

Prezioa

- Matrikula: 2.500 euro (hiru zatitan ordaintzekoa), MUKide Mondragon Unibertsitateko ikasle ohien elkarteko kideek %10 merkeago.
- Otorduak eta lotarako tokia: 300 euro.

Informazio jasotzeko eta izena emateko

- kulturgintza@mondragon.edu
- [EKT 5. edizioaren eskuorria.](#)
- [Aurreko edizioen gaineko informazioa.](#)
- [Izen-emate orria.](#)